

Nere berri jakin̄ nai duzun ezker, or, zer-nola ibillia naizen mundu-txikian zear. Jaio nintzan emendik urruti ez den Akoitiko errian, jaiotz-agiriak dionez 1927'ko agustuko 27'an.

Euskarari buruz, bai etxean, bai kalean, giro guztiz onean, Naiz eta eskoletan erdera utsean jardun, kalean euzkaraz mintzatuko giñan. Erdara "mekauen" esateko baka-rrik erabiliko genduan.

Amairu urtekiñ, 1940'an, sartu nintzan praile-bidean. Asi, Naparroko villafrankan. Eta bukatu amairu urteko karrera Bilbon. Tartean, urtebete Zornontzan, Iruñan bi urte, Gasteizen urte bat, (Iru urte auetan filosofia ikasten), Ondoren teologia ikasiz, lau urte luze Bilboko Begoiñan.

Euskarari buruz, gure edo nere giroa oso txarra izan zen. Frankoren legeak agintzen zuan gure kolejio guzietan. Kaleko agintariak bezala, gureak ere euskara zapaltzea nai izan zuten. Maixu denak ez arren, gorroto zioten euskarari, beztela Frankotar ziren nagusiei bildurra. Dena den, banaka, bai ziren maixuen artean, euskotar jator batzuk, eta aiei ezker, euskerazko literaturaren paltarik ez nuan izan. Gero, euskara ez galtzearren, batzutan lasaiki eta bestetzueta txibatoen bildurrez, jolaz eta atsedean aldietan, euskeradunok, euskaraz, egingo genduan. Beti ere txibato delakoensalaketetan gaitz-esale giñala azaltzen zen. Garai orretan jarri zidaten "baskorro"gaiz-izena, nere euskara zaletasuna ikusirik.

Orrela joka nualako, euskerazko idazkiak irakurriz eta atsedenetan aldietan euskaraz egiñez, aal izan nuan amaren magalean ikasitako euskara gozoa ez galtzea.

Emen, eibarren, euskaldun izlari gazte bat bear zutelata, ekarri ninduten 1952'ko urrian. Eta, urrengo illean, asi nintzan izlari. Konbentuan, ongi etorria artu orduko adierazi zidan nagusi jaunak bi illabetez, goizeko 6'tan, eta 7'etan eta 9'tan nere kontu jartzen zituala mezako sermoiak. Ala Jainkoa. Ura nere larria. Karreran juxtu-juxtuan gordetako euskara, oiuka azaldu bear jendearen aurrean. Dena den, komentuan, euskal giro ederra bai zen, denen laguntzarekiñ eta txaloekiñ, aurrera jo nuan. Eta urte bertan Andre-Mari Guztiz Garbiaren sermorako deitu zidaten Mendaroko Garagartzati.

Gerora errierriz ibilli izan naiz, beti ere euskaraz predikatuz.

1958'an, ala bear, eta apirilean, lenengo egunez, Burgosen, Infanteria San Martzial ^{M7}, kuartelean soldauzkari, alferez bezala, asiera eman niom. Ortik, nere ez-izena. Melo alfereza.

Burgosen iru illabetez egon nintzan, eta emen ere, soldaduen artean, euskal-giroa be-²⁰ tzen asinintzan. Pasko-garaia bai zen, kuartel guzietatik pasa bear izan nuan aitortetak jasotzen eta guzietan adierazi nien, alde aurrez gure nagusiarri baimena eskatuz, nai zuanak, eurak bezala, soldau-uzkan derriorez nengoen praile euskalduna nintzala eta lasai etortzeko aitortzra. Makiña bat eskuldun lasaitu zan.

Burgosen iru illabete et Leongo basera. Birgen Del Camino aerodroman 20 euskaldun aurkitu nituan. Pelotan egiten genduan egunefo. Alkarrekiñ merendatu. Alkarrekiñ euskaraz egiñ. Elkarrekiñ gabonak pasatu. Multa jarrita genduen erderaz egiten zuanarentzat. Ardo botella bat.

Emendik Murtziara, San Javier delako "Akademia del Airera". Emen kadete bezala iru eskuldun zeuden. Alkartzan giñan pelotan egiteko eta pote batzuk artzeko. Orain errege den Juan Karlos ere emen zen. Noizka etortzen zen pelota jokora. Pizkat donostian egon zenean ikasi omen zuan. Maite omen zuan Donostia. Nerekiñ aitortzen zenean, maiz, aitatzan genduan euskalerra. Eta'rik ez zen orduko denboretan..

Emen ere, el basko, esaten ikasitako jendea bai, zen. Batez ere erri txikietako apazek predikatuz eta jendea kofezatuz, "el kapellan basko"nai izaten zuten. Kapitan gallego alai bat bai zen, ni ikustean, gora euskadi, oiue egiñ oi zuana.

Sei illabete emen ^{Mar} Mar Menor, itxax-txikiaren ertzean eta Sebillara. Konkretoki, "Sierra Morenan" Kostantina errian, amerikanoek eta españolek daukaten "Kontrol y Alerta N^o 3" delakora.

Emen euskaldunen arrastorik ere ez zen. Baiña, amerikano batzuk jakin̄ nai izaten zuten gure berri. Oso lagun egiñ nuan ~~Sumarraga~~ abizenez Sumarraga zen ameriketar espezialista bat.